SAKANAKO MANKOMUNITATEA
kirolak@sakana-mank.eus
www.sakana-mank.eus

SAKANAKO XIX. NKJ TRIATLOIA

XIX. TRIATLON JDN DE SAKANA

AURKIBIDEA

INDICE

		Orrialdea
1.	Data, tokia eta kokalekua……	2
2.	Partaideak……	3
3.	Ibilbideak:	
	3.1. Kadete eta gazteak ……..	4-5
	3.2. Haurrak ……	6-7
	3.3. Kimuak……..	8
	3.4. Benjaminak ……	9
4.	Izen emateak……..	10
5.	Arautegia……	10-11
6.	Informazio interesgarria……..	11

SAKANAKO MANKOMUNITATEA
kirolak@sakana-mank.eus
www.sakana-mank.eus

1. DATA, TOKIA ETA KOKALEKUA

DATA: 2021eko uztailak 24ean

ORDUA: 1.go lasterketaren hasiera: 10:00etan

DORSAL JAKINARAZPENA, TRANSIZIO GUNEA ETA HELMUGA: Urdiaingo igerilekuan
IRTEERA: Urdiaingo igerilekua.

URDIAINEKO MAPA ETA IPARRALDEAN IGERILEKUA



2. PARTAIDEAK

Hurrengo taulan ikusi daitezke material kontrol eta lasterketa hasieraren ordutegiak, maila desberdinak (emakume zein gizonezkoentzat), dagozkien jaiotze datak eta bakoitzak egin beharreko distantzia.

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	DISTANTZIAK IGERIKETA	DISTANTZIAK TXIRRINDULA BTT	DISTANTZIAK OINEZKO LASTERKETA
9:35-9:50	10:00	Gazteak	2004 2005	486m 18 luze	8000 m 2 buelta	2200 m 2 buelta
		Kadeteak	2006 2007			
11:10-11:20	11:25	Haurrak	2008 2009	270 m 10 luze	4000 m Buelta 1	1100 m Buelta 1
12:15-12:25	12:30	Kimuak	2010 2011	216 m/ 8 luze	3000 m Buelta 1	750 m Buelta 1
13:00-13:10	13:15	Benjami nak	2012 2013	108 m 4 luze	1500 m Buelta 1	350 m Buelta 1

SAKANAKO MANKOMUNITATEA
kirolak@sakana-mank.eus
www.sakana-mank.eus

3. IBILBIDEAK

3.1. KADETE ETA GAZTEAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	DISTANTZIAK IGERIKETA	DISTANTZIAK TXIRRINDULA BTT	DISTANTZIAK OINEZKO LASTERKETA
9:35-9:50	10:00	Gazteak	2004 2005	486m 18 luze/ largos	8000 m 2 buelta	2200 m 2 buelta
		Kadeteak	2006 2007			



TXIRRINDUA 8000 m

Igeri egin ondoren, kadete eta gazte kategoriako triatletak igerilekutik atera, eta 1.go trantsizioa egin ondoren, bizikletaz abiatuko dira ezkerretara bideberritik Urdiain aldera, km 1 egin ondoren, eskubira San Pedro aldera hartu, San Pedron eskubira hartuko da Dameroko pistatik, errepidea gurutzatu eta basoko pistatik, Urdiaingo errepidearen paralelo, berriz San Pedrora iritzi arte, eta errepidetik Urdiaingo igerilekura itzuliko dira. Ibilbide honi bi buelta emango diote. Berriz trantsizio gunera sartuko dira eta 2.segmentua bukatu da.

OINEZKO LASTERKETA 2200 m

Oraingoan trantsizio gunetik atera eta eskubira joko dute 550 m pistatik egiteko, pibotean 180ºko buelta hartu eta igerileku aurrera bueltatu, ibilbide honi bi buelta eman beharko diote, ondoren helmugara sartuko dira.

3.2. HAURRAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	DISTANTZIAK IGERIKETA	DISTANTZIAK TXIRRINDULA BTT	DISTANTZIAK OINEZKO LASTERKETA
11:10-11:20	11:25	Haurrak	2008 2009	270 m 10 luze	4000 m Buelta 1	1100 m Buelta 1



TXIRRINDUA 4000 m

Igeri egin ondoren, haur kategoriako triatletak igerilekutik atera, eta 1.go trantsizioa egin ondoren, bizikletaz abiatuko dira ezkerretara bideberritik Urdiain aldera, km 1 egin ondoren, eskubira San Pedro aldera hartu, San Pedron eskubira hartuko da Dameroko pistatik, errepidea gurutzatu eta basoko pistatik, Urdiaingo errepidearen paralelo, berriz San Pedrora iritzi arte, eta errepidetik Urdiaingo igerilekura itzuliko dira. Berriz trantsizio gunera sartuko dira eta 2.segmentua bukatu da.

OINEZKO LASTERKETA 1100 m

Oraingoan eskubitara joko dute 550 m pistatik egiteko, pibotean 180ºko buelta hartu eta igerileku aurrera bueltatu, non helmuga kokatuko den.

3.3. KIMUAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	DISTANTZIAK IGERIKETA	DISTANTZIAK TXIRRINDULA BTT	DISTANTZIAK OINEZKO LASTERKETA
12:15-12:25	12:30	Kimuak	2010 2011	216 m/ 8 luze/ largos	3000 m Buelta 1	750 m Buelta 1



TXIRRINDUA (3000 m)
Igeri egin ondoren, triatleta kimuak igerilekutik atera, eta trantsizio gunean 1.go trantzizioa egin ondoren, bizikletaz abiatuko dira ezkerretara bideberritik Urdiain aldera, ondoren pista hartuko dute ezkerretara Sarabe aldera, pibotean 180ºko buelta eman eta pista berdinetik bueltatuko dira lehenbizi eta bideberritik gora gero, igerileku aldera. Berriz trantsizio gunera sartuko dira eta 2.segmentua bukatu da.

OINEZKO LASTERKETA (750 m)
Oraingoan trantsizio gunetik atera eta eskubitara joko dute 375 m pistatik egiteko, pibotean 180ºko buelta hartu eta igerileku aurrera bueltatu, non helmuga kokatuko den.

3.4. BENJAMINAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	DISTANTZIAK IGERIKETA	DISTANTZIAK TXIRRINDULA BTT	DISTANTZIAK OINEZKO LASTERKETA
13:00-13:10	13:15	Benjaminak	2012 2013	108 m 4 luze/ largos	1500 m Buelta 1	350 m Buelta 1

TXIRRINDUA (1500 m)
Igeri egin ondoren, triatleta benjaminak igerilekutik atera, eta trantsizio gunean, 1.go trantzizioa egin ondoren, bizikletaz abiatuko dira ezkerretara bideberritik Urdiain aldera 750 m, pibotean 180ºko buelta eman eta bide berdinetik gora igoko dira berriz igerileku aldera. Berriz trantsizio gunean sartuko dira eta 2.segmentua bukatu da.

OINEZKO LASTERKETA (350 m)
Oraingoan eskubitara joko dute 175 m pistatik egiteko, pibotean 180ºko buelta hartu eta igerileku aurrera bueltatu, non helmuga kokatuko den.

4. IZEN EMATEAK

Izen emateak on line egingo dira http://www.rockthesport.com/ helbidean astelehen arte, uztailak 19, hau barne. Ezin da izena eman probaren egunean. Izen ematea dohainik da, froga hau Nafar Kirol Jolasen barne dagoelako. Partaide guztiak federatuta egon behar dute talde baten bitartez.

5. ARAUTEGIA

1. Sakanako Triatloia Sakanako Mankomunitateak antolatzen du. Sakanako Triatloi taldea, Aitziber elkartea, Urdiaingo Udala eta Nafarroako Triatloi Federazioaren laguntzarekin.

2. Trantzisio gunea 9:35ean zabalduko dira kadete eta gazte mailentzako, eta 9:50etan itxiko dira. Froga hau bukatu ondoren, 11:10etan, boxek zabalduko dira kimu eta haur mailentzako eta 11:20etan itxiko dira, haurren froga hasi baino 5 minutu lehenago. Kimu mailako froga bukatu ondoren, 13:00etan, boxak zabalduko dira benjamin mailarentzako, eta itxiko dira 13:10etan, benjamin froga hasi baino 5 minutu lehenago.

3. Partaide bakoitzari dortsal zenbaki bat jakinaraziko zaio, eta antolatzaileek errotulagailuz ezkerreko beso eta hankan idatziko diote.

4. Igeriketa segmentua Urdiaingo 27 metroko igerilekuan eginen da.

5. Bizikletako segmentuan kaskoa derrigorrezkoa da eta bizikleta mendikoa bakarrik izan daiteke.

6. Frogak irauten duen bitartean, benjamin, kimu eta haur mailako partaideek kanpoko laguntza jaso ahal izango dute, bakarrik epaile, teknikari akreditatuak edo antolakuntzako partaideengandik, arazo mekaniko bat konpontzeko. Kadete eta gazte mailako partaideek ezin izango dute inolako laguntzarik jaso.

7. Ibilbidea zaindua, markatua eta trafikoari itxita izanen da lasterketa bakoitzak irauten duen bitartean.

8. Istripuak gertatzen badira, antolatzaileak ez dira arduradunak izango.

9. Zerbitzu medikuak Olmo Anbulantzien esku egongo dira.

10. Korrikalariek, izena ematen dutenean, araudia onartzen dute.

11. Partaide guztiek Nafarroako Triatloi Federazioko epaileen esanak beteko dituzte, arautegi hau betetze aldera.

6. INFORMAZIO INTERESGARRIA

- Froga bukatzen denean, partaideek eta familiek igerilekutik atera beharko dira, edo gelditu nahi badute, bakoitzari dagokion sarrera ordainduko du. Igerilekura ezin da kanpotik bazkaria ekarri, izan ere tabernakoek eskaintzen dute zerbitzu hori.

- Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko antolakuntzarekin harremanetan jarri kirolak@sakana-mank.eus helbidean edo 948 46 48 66 telefonoan.